



Desobediencia

Kale-irakurraldia

Milagrosako atarian
2020/07/12 12:12ean

Irakurraldi honetan hiru testu mota ditugu:

- [1]: Sorkuntza testu libreak, DESOBEDIENTZIA gaiaren inguruan.
- [X]: Moldaketa libreak, Thorearen *Desobedientzia zibila* testuan oinarrituak.
- [2]: *Desobedientzia zibila*-tik zuzenean hartutako pasarteak.

Hernani Kale Literaturaren tradizio ludopoetikoari jarraituz, jolasa proposatzen dizuegu. Irakurraldiaren lau ataletan launa testu irakurriko dira (azkeneko atalean bost. Atala bukatutakoan, tarte bat hartuko dugu irakurri diren testuak zer diren asmatzeko, 1 (= testu librea), X (= Thorearenean oinarritua) ala 2 (= Thorearen aipu zuzena) jarritz, eta amaieran ikusiko dugu nork asmatu duen gehien.

- | 1 | X | 2 | |
|--------------------------|--------------------------|--------------------------|---|
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 1. [Nola idatziko genuke gauero] |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 2. Iturbegirantz |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 3. [Baliteke lana biradera bati eragitera mugatzea] |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 4. [Zertarako du] |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 5. Pasteur / Thoreau |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 6. [Eman ezazu] |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 7. Haritz zaharra |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 8. Ez nahastu desobedientzia eta arrazoia izatea |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 9. [Hiztegietaiko definizioetan] |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 10. Desobehidientzia |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 11. [Ezkurra eta gaztaina] |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 12. Kontakizun eta ikarak |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 13. Entzun |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 14. Desobedientzia zibila |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 15. Desobedientzian datza |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 16. [Ne me quitte pas] |
| <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | <input type="checkbox"/> | 17. N'oubliez jamais |

DESOBEDIENTZIA

2020/07/12

HERNANI

Henry David Thoreau uztailaren 12 batean jaio zen Concord izeneko herrixka batean, Ameriketan, duela 203 urte. Inoiz ez zuen botorik eman baina demokrazia, basoaz, arrazakeriaz, ibaiak, justiziaz, sagarraz eta askatasunaz modu ezin eraginkorragoan idatzi zuen. Berak hedatu zuen Desobedientzia Zibilaren ideia, 1849an argitaratu zuen hitzaldi batean. Garai horretako pandemia batez (tuberkulosia, alegia) kutsatu eta 44 urte zituela zendu zen. Hainbeste maite zuen Walden laku ertzean dago bere estatua bat, lurrera botatzen inor saiatu ez dena.



1. [Nola idatziko genuke gauero]

Nola idatziko genuke gauero,
lanparak elikatzen eta papera argitzen duen bale olioagatik ez balitz?
Argien Aroan bizi gara, jende ilustratua gara, edo hala uste dugu,
baina Ilustrazio hau bale olioeko kandelen argitan sortu zen,
urtero milaka balea hiltzen ditugu, naturaren izakirik bikainena,
gure liburuak, gure egunkariak eta entziklopediak idazteko,
mundu zibilizatua basatiaz elikatzen da,
balea gure arpoiekin zulatzen dugun mundua da,
gure industria guztiarekin abiatzen gara olio bila gaua argitzeko
eta horrela gauza are ilunagoak ikusarazten ditugu,
Erdi Aroan imajinatzen nuen neure burua,
hemen Concordeko ziegan itxita
baina inoiz ez nintzen egon mundu modernotik
hemen kartzelan baino hurbilago, bere erakundeen erdian baino,
hemen barruan, Jonas balean bezala,
gau mozkorraldi baten ondoren ohera presaka joaten den batek bezala,
kontzientziak oraindik ere damutzen dion batek bezala,
egoera xixtrin horretan larritasunean jirabiraka dabilen batek bezala,
pasatzen zaion arte, eta, azkenik, sentitzen duen minaren erdian,
kontzientzia
zauri bat dela
bizimodu hau,
esklabotza,
Mexikoko gerra dira odolusten gaituzten zauriak,
zauri horretatik ihes egiten digu gizateriak,
ikusten dut odola isurtzen,
eta horregatik nago hemen
baleak eraman arte.

2. Iturbegirantz

Ur xirripa
aintzira honetara
edo putzu hartara

nondik heltzen den
ikusten dutenek,

kemena bildu
eta erromesaldia
jarraitzen dute

iturbegirantz.

3. [Baliteke lana biradera bati eragitera mugatzea]

Baliteke lana biradera bati eragitera mugatzea,
baina nork eraikitzen du?
Non dago beste guztiei eragiten dien biradera?
Gutako bakoitzarengan biradera hori dago.
Makinek egiten duten lana beste batzuk egiten ari dira,
lehenago edo beste nonbait.
Atzeratu edo eskuordetu egiten dugu, besterik ez.
Azter dezagun gaur egungo ordena,
eta iraganeko aldaketa guztien sedimentuak aurkituko ditugu,
geologian egiten den bezala.
Iraultzarik ikusgarrienak ikusezinak diren kausen ondorio dira:
aire arina, ur isila eta lurpeko sua.
Hiriak argitzen duen gas bera.
Baina hori ateratzea ere kosta egiten zaigu,
eta une bat iritsiko da, eta hori ere amaituko da.
Eta orduan gaua itzuliko da.
Ez badugu ikasten orain gutxiagorekin bizitzen, ez dugu inoiz egingo.
Lanari aplikarazten digun energia moral hori gabe,
batzuek fedea eta beste batzuek maitasuna deitzen dioten hori gabe,
ez dira hamar urte aski trantsizioa egiteko, ezta hamar mila ere.
Batzuek kristalezko hiriak ikusten dituzte.
Ni ez naiz behar bezain ameslaria.
Auskalo zer ekarriko digun hurrengo orduak.
Ez nago ondo prestatuta mundu perfektu bat sortzeko.
Bakarrik dakigu nola galdu ziren beste garai batzuetan.
Zeruaz ari zarete eta lurra zikintzen duzue.
Zertarako nahi dut etxe bat, planeta onargarririk gabe?
Hemen dago nik nahi dudana paradisu guztia.

4. [Zertarako du]

Zertarako du
bada lagun bakoitzak
kontzientzia bana?

Esan ohi da — taldeak
ez duela kontzientziarik;

baina kontzientzia
duten lagunen sortak
kontzientzia du.



5. Pasteur / Thoreau

Belaunaldi batek ez du bere burua ezagutzen
besteen historia ezagutzen ez dudan bitartean.
Thoreauk albisteak entzun zituenean
John Brown terroristatzat hartu zutela
esklabistak jazartzeagatik,
suminduta, kanpandorrera igo zen
eta bere apologiaren irakurketa iragarri zuen.
Pasteurrek iseka eszeptikoa entzun zuenean
— Institutuko lankideak — sukarrarengatik,
haserre arbelera oldartu zen
eta kateak estreptokokoak marraztu zituen.
Bi horiek, Ulises eta Platon bezala
arakatu zuten kosmos berri bat antzinaroan
nola poemak idazten diren. Etsaiak:
gaixotasuna eta heriotza; gudua
beren kontzientzietan.

Nola kontatuko du nireak bere istorioa...?

Bi horiek zelaietan imajinatzen ditut.
Proventzako eguzkipean lasai,
artalde beltz bat zaintzen,
tximeletak eta beldarrak, haien laborantzak,
alabari mikroskopioa erakusten
eta bere pasio sakratua askatzen
hain metafisikoa eta praktikoa.
Urtero ospatzen dut haien eguna
Valeryrenaren ondoan, apalki
ongi idazten ikasiz, baita Mozartena ere,
oraindik bizi dela ni urrun mantentzeko
harrokeriatik, eta horien marka daramat.
Beste batzuk salbatu ahal izan zituzten, ez beren burua:
Sokrates, Galeno, Hipokrates,
giza gurutzeari emandako espiritua.

6. [Eman ezazu]

Eman ezazu
boto osoa — ez soilik
paper puska bat,

zeure eragin osoa
zeure eragin osoz.

7. Haritz zaharra

Aspaldiko partez
haritz zaharraren pera etorri naiz

eseri naizen bezain pronto
—zer moduz zaude? galdetu dit
beti bezala

—ikusten duzu, erantzun diot
—bai, bai, baina bestela?
—bestela, zer nahi duzu esatea?
nire bizitza zer izan den berrikusten nabil

—ez duzu langintza xamurra hautatu, lagun
zenbat urte dituzu?

—hogeita hemeretzi, bete berri

isilik geratu da

—barkatu, esan diot
nire jokabide berekoiaz oharturik,
eta zu zer moduz zaude?

—ni? bakarrik, zu bezala

ez dut jakin zer gehitu
eta isilune luze baten ondoren
berriro mintzatu zait

—sentitzen dut
baina nire hausnarketa garaian etorri zara,
ni ere nire bizitza berrikusten ari naiz
eta jarraitu beharra dut

alde egitera nindoala
azken galdera bat egitera ausartu natzaio

—zenbat urte dituzu zuk?

—ehun eta hogeita hemeretzi bete berri

8. Ez nahastu desobedientzia eta arrazoia izatea

Zer da zilegi? Ona dena.

Eta zergatik da ona? Denok egiten dugulako.

Ohituraz edo arrazoinamenduz egiten dugu?

Nork balioztatzen ditu ohiturak eta arrazoinamenduak?

Hegel filosofoak esan zuen *arrazoimena indarrik gabe ez dela ezer*.

Orduan, zerbaitekin ados egon arren,

obeditu egiten dugu nahi dugunean.

Baina beti obeditzen badugu, bada beste zerbait,

boterea (indar bat) da behartzen gaituena, gu ados egon ala ez.

Beraz, desobeditzen badugu, kontraesanean gaude

edo gure askatasuna baliatzen ari gara?

Gauza bera al da "ados nago, baina kontra nago" esatea

eta "desobeditu egiten dut, inposatzen didan boterea (edo legea)

onartzen ez dudalako" esatea?

Obeditzea bideari jarraitzea eta

desobeditzea beste bide bat eraikitzea bada,

nork bermatzen du nire askatasuna?

Nire erabakia ala guztiona?

Beraz, "desobeditzaile guztiak" eta "aske guztiak" berdinak dira.

Bai, baina denok bat etorriko gara desobeditzen?

Beraz, desobedientziarekiko obedientzia mantendu beharko dugu,

aske izaten jarraitzeko!



AIR MAIL



DESIGNER ENZIO

9. [Hiztegietako definizioetan]

Hiztegietako definizioetan, grinen ukazio gisa azaltzen da heziera.

Obedientzia ere dei diezaiokegu. Hori bilatzen eta saritzen du Amerikako gobernuak, eta pentsatzea eta libre sortzea zigortu.

Gobernuak gure gaineko iritzia du, baina guk ezin dugu iritzirik izan, eta, baldin badugu, isiltzea, geure buruentzat gordetzea, eskatzen digu. Zerbait esatekotan, haren hitzak errepikatzea da gure egitekoa, zenbat eta ozenago eta zenbat eta otzanago, orduan eta zintzoago, haien begietara.

Gizonak, ordea, ezin du halakorik onartu.

10. Desobehidientzia

behiontzat musika entzutea
da zehaztasunaren plazera.
musika, poesia, artea...
arauetan dago adiera.

o, behi diakroniko maitea,
i-greka ardatzari begira
denboran eman duzu astia,
beti araei jarriz dirdira.

zelaiakide sinkronikoaren
irrika x ardatzean dago.
baina oraina hobetsi arren,
arauekin zintzo dabil, zintzo.

o, behi diakroniko maitea,
segundoa den edo mendea, batzuetan
desobehidientzia nahiago nuke,
baita sonetoen arauak bertan
behira utzi ere.

11. [Ezkurra eta gaztaina]

Ezkurra eta gaztaina
elkarren aldamenean
erortzen direnean,
ez da bata ernatu gabe gelditzen
besteari lekua uztearren.

Bakoitzak bere legeari jarraiki,
ernatu,
hazi eta
ahal duen bezain eder
loratzen dira,
bestea, beharbada,
itzalpetu eta
suntsitzen duen arte.

Landare batek
ez badu bere izaeraren arabera bizitzerik,
hil egiten da;

baita gizona ere.

12. Kontakizun eta ikarak

Historia eskribituaren itzalek kontatu ziguten sorginena
munstroen orrialdeetan
alta sorginik ez zela izan esan nahiko nizueke atzekoz-
aurrerako eserialdi batean
orain harro sorginak kamisetetan grabatzen dituzuen askori
izate haiek guztiak eta egungo zalantziatiak
dogmaren labean erreko zenituzketenei
zuekiko ezetzaz babestuko naiz
basoko bidean barrena abiatu bitartean
Rodariren zenbait ipuin
hautzaroaren harriduran dantzari
lanpostura eraman beharrean
beste gauza batzuek usaintzen ziren
opariak isil airean disolbatzen ziren lekura desbideratu zen
bus haren kontakizuna
bizi beharraren beharrez tenorearen sumendian
tresna irmoz etxea eraitsi zuen haur argitsu kuadrillarena
esku bizi-emailearen defentsan
errege koroa bat eramateko edozein buruk balio duela
azalduz matxinatu ziren herritar errepublika
sentsual zaleen hura ere bai
irria algara eta adimena
atseden lekuetako gorputzen iturrietan.
Badakigu jakin baina
euren ezinegonetik
azpiratuen sufrimendurainoko zubiak luzatzen dituztenek
krudelkeriaren mahaian zuringoaren platerak
zerbitzatuko dizkigutela. Beti bezala gorri
izango da borroka baldosa eta lokatzean
garestia baita ez obeditzearen lurraldean uzta biltzea.



13. Entzun

Estatu-gizonei eta legegileei,
erakundeen baitan
erabat murgilduta egonik,
ezinezkoa zaie hura argi eta garbi ikustea,
eta gizartea mugiarazteaz mintzo dira baina handik at
ez dute aterperik,
eskarmentu
eta adimen handiko gizonak izan litezke,
eta zalantzarik gabe sistema burutsuak
eta erabilgarriak ere asmatu izan dituzte,
eskerrak ematen dizkiegu,
eta bihotzez,
ekintza horien guztiengatik,
estatu-gizonen
eta legegileen agudezia
eta balioa oso zabalak
ez diren mugen artean daude,
eta joera dute ahazteko mundua
ez dutela politikak
eta komenigarritasunak aurrera
eramaten.

14. Desobedientzia zibila

Emerson espetxera joan zitzaion bisitan Thoreauri, eta galdetu zion: “Baina zer dela eta zaude zu hemen?” eta Thoreauk erantzun: “Eta zer dela eta ez zaude zu hemen?” Alegia, zinez harrigarria, bere burua zintzotzat duenak legedia injustuari beste barik men egitea da. Borrokak espetxeratzea badakar, espetxera. Norbera gainera, bizilaguna zertan ote dabilen jakin guran ibili gabe.

Desobedientzia zibila eragingarria izaten da maiz, eta, besteak beste, Espainiak derrigorrezko soldadutzari dagokionez eta Frantziak transgenikoen aferan atzera egin eta jarrera aldatu behar izan dute. Luther King eta Gandhik ere arrakasta lortu zuten. Hori bai, asesinatu egin zituzten biak.

15. Desobedientzian datza

Desobedientzia, men ez egitean datza.
Arautua, arautua dagoelako irizpide soilagatik ez onartzea.
Ahots isila entzunaraztea bezainbat, ikusezina begiraden
erdian ipintzea.
Gauzen zergatia kuestionatzea.
Ebidentziaren itzalak ikustea, eta itzalaren argitasunak
nabarmentzea.
Galtzera kondenatutako borrokkak antolatzea.
Soseguari tranpak jartzea.
Plazeraren ezkutalekuak arakatzea.
Desadostasunen errotari haizea ematea.
Berezkotasunean ez sinestea.
Kontraesanak biluztea.
Ezezagunari atek irekitzean, ezagunaren arrazoiak itauntzea.
Marearen aurka igerian aritzea.
Handiak, ekintza sotilez lotsagarri uztea.
Txikia hauspotzea.
Bikaintasunean federik ez izatean adina, akatsei balioa
aitortzea.
Pentsamenduen nekean lotan erori, eta duintasunaren
begiradaz iratzartzea.
Desobedientzia, norbera ezbaian jartzean datza, baina batez
ere, hemen irakurritakoak aintzat ez hartzean.

16. [Ne me quitte pas]

Ne me quitte pas
esaten zuen
sirena kantuak
goxo baino ozen

ne me quitte pas
esaten zuen
zure zaindari naiz
egin kasu arren

ne me quitte pas
nirekin duzu
urrezko lepoko
(e)ta soineko eder

ne me quitte pas
nirekin duzu
larruzko zapata
nahi aina rolex

Baina zergatik
neri ez zidan
sirena kantuak
susmo onik eman

(e)ta ixil-ixilik
ustegabea
ahots berri bat
ene barruan

ne me quitte pas
entzuten nuen
baina ahots berriak
biluzten ninduen

ne me quitte pas
entzuten nuen
baina ahots berriak
aske zidan uzten

ne me quitte pas
ahots hori.....
.....ahots hori
NI NEU nintzen!!

17. N'oubliez jamais

Maitea zergatik entzun behar dituzu
Kanta zahar guztiak?
Zergatik kantatzen dituzu betiko doinuez?
Eta halaber kalearen amaieran
Zerbait pasatzen ote den

Ohartu ez
Doinu berriak daude
Eta kanta berriak

Hark esaten zuen:
Nire bizitzan, hainbeste amorru egon da
Ezen ez naizela ezertaz damutzen

Non rien de rien non je ne regrette rien
Ni hain bihurria nintzena
Ene berezko barruko kanta

Ez dezadan inoiz ahantz

Ez dezadan inoiz ahantz
Nire aitari entzun nion esaten
Belaunaldi bakoitzak bere bidea duela
Desobeditzeko beharra

Ez dezadan inoiz ahantz
Norberaren norabidea ez dela patuan dagoena
Desadostasunean egoteko beharrak
Bizi gaitu
Hain da eder
Arauk bide erdian sartzen direnean
Desobeditzeko beharra
Ez dezazuen inoiz ahantz

Maitea, zergatik kantatzen duzu
kanta zahar bera?
Zergatik kantatzen duzu
doinua soilik

Kalean zerbait pasatzen ote den
Ohartu ez
Doinu berriak daude
Eta kanta berriak

Hark esan zuen:
Nire bihotzean gaztetxo baten pasioa dago
Betiko duoa egiteko pronto
Egunen batean, laster
Norbaiten irribarreak jarraituko zaitu

Gaueko ordu txikitan
Zure berezko barruko kanta
Ez dezazun inoiz ahantz

Ez dezazun inoiz ahantz
Nire aitari entzun nion esaten
Belaunaldi bakoitzak bere bidea duela
Desobeditzeko beharra

Ez dezazun inoiz ahantz
Zure norabidea ez dagoela patuan
Desadostasunean egoteko beharra
Arauk bide erdian sartzen direnean
Ez dezazun inoiz ahantz

Zer den joko hau
Maitasuna edo ulermena bilatuz?
Dena bat eta bera al da?
Egun hauetako batean maitasuna sendaketa dela diozu
Ez nago seguru

Baina hain litzateke eder
Ez dezazun inoiz ahantz
Nire aitari entzun nion esaten
Belaunaldi bakoitzak bere bidea duela
Desobeditzeko beharra

N'oubliez jamais

Testu hauek
Hernanin irakurri
eta entzun ziren
2020ko uztailaren 12an
Desobedientzia izeneko
ekitaldian



EGILEAK

Mikel Antza, Jose Kruz Aranberri, Edgar Bowers,
Aritz Branton, Antonio Casado da Rocha,
Ana Galarraga, Aran Garmendia, Damián
Pedrosa, Fito Rodriguez Bornaetxea, Gorka
Setien, Henry David Thoreau (Edu
Lartzanguren), Markos Zapiain

